

Txokokeriak

Joxean Agirre

Euskarak nahikoa ondo bereizten ditu eremu publikoa eta pribatua. Twitterren (zer dago publikoagorik?) euskara estandararekin jarraitzen dute guztiek, baina Whatsappen lehia halako bat sortu da lokalismoak erabiltzeko, euskararen pedigria txokokerietan balego bezala. Anaia gazteak edo iloba batzuek muturreraino eraman dute joera eta hain azpeitiarrez idazten dizkirate mezuak non birritan irakurri behar izaten ditudan ulertzeko. Eta ondo daude, zer gero!, hizkuntzaren kolore eta jatorkeria horiek; eta interesgarria ere bada, ia-ia kale bakoitzak, auzo bakoitzak, baserri bakoitzak bere ñabardurak baititu. Mikel Labakari irratiz entzuten nionean banekien Loiola aldekoa zela edo Mikel Aranbururi kale zulokoa. Imanol Lazkanori sumatzen zaio Landetako delatzen eta Pako Aristiri Urrestillakoa. Zau-

rautzen, aldiz, ez nuke jakingo zein den Urtetako, Elkanokoa edo Urdanetako, baina Andoni Egañak seguru asko bai. Antzera gertatuko da Bermeen, Ondarroan edo Lezakan. Euskaltzain fin batek ez luke arazorik izan behar trenean edo autobusean doala elkarrizketa bat entzun eta mintzaideak nongoak diren asmatzeko. Gauza bertsua gertatuko da euskaldun berriekin: Bilboko Alde Zaharrean zabiltzala ezin du hain zaila izan nork ikasi zuen Gabriel Arestin eta nork R. M. Azkue euskaltegian antzematea. Neuri behintzat etxean berehala antzeman ohi didate telefonoz norekin ari naizen. Euskara lokalari buruzko kontu hauei ez diet interes handirik ikusten, herriz herri jo eta ke esamoldeen bildumak egiten jarraitzen badute ere. Benetako interesa Iñaki Segurolak egiten duenari aurkitzen diot.

Batzuetan pentsatzen dut argitaratu dituen lanak hartu eta denboralditxo bat eman beharko nukeela aztertzen, desageratzera doan euskara baten zantzurik ederrenak bildu eta berriak asmatuz euskal tribu urbanoentzako balio dezaken argot distiratsu bat ari baita osatzen. Horrela neu ere, azaleko txokokeriak alde batera utzi eta has naiteke whatsapp dotore askoak idazten eta erabil ditzaket berak erabiltzen dituen “basakristau” edo “sahieskariak gara” (nekez uztartzen diren idiak) edo “militante bat bezain ernegantea eta neurotikoa” edo “zernahi terapiaren batekin kexelebre-tua” edo “plantta hutsa dela uste dute” edo “umetan jolasean eta okerrean ibiltzen ziren” edo “autista zupiziente bat” edo “turista ikusmiranteak” edo beste hainbat esamolde, hain ederrak non txokokeria gehienak narras uzten dituen. •

Inkisizioak ez du amaierarik

Saioa Iraola

Orain pare bat aste gertaturikoak gogoetarako bidea ematen duela uste dut. Zegamako sendalari bati Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak 27.000 euroko isuna jarri izana. Bezero bati erreakzio alergikoa eragin zion ukendu batek eta salaketa jarri zion. 88 urte ditu Solita Apaolazak eta 40 urte daramatza horretan, arbasoen jakinduriak baliatuta egin du ibilbidea. Txikitatik eduki dut sendabelarrekiko jakin-mina, mendian barrena horiek ezagutzeko eta baita horietatik eratorritako krema, ukendu, olio eta abarrak egiteko ere. Albisteak mindu nau, baina ez nau harritu, herri jakinduriarekiko interes eza nabaria baita gurean, enpresa farmakologiko eta biomedikuntzaren mesedetan. Euskal Herrian ezagutza handia izan da sendabelarren inguruan, eta transmisio horren erakusle badira egun hainbat la-

gun, asko eta asko emakumeak gainera. Baina belaunaldiz belaunaldi transmitituriko ezagutzarekiko babes falta ikaragarria dago, eta, gainera, egun zientifikoki frogatzen ez den orok ez duenez zilegitasunik, ba... Baina, bestalde, egia da, medikuntza ofizialak eskaintzen duen medikalizazio baxatzen dela-eta, edo maizetan ere, denerako alternatiba ezaren eraginez, gero eta jende gehiagok jotzen duela medikuntza ofizialek at dauden bestelako jardunbideak ezagutzera, probatzera eta erabiltzera. Kontziente izanik, noski, beste edozein sendagaien moduan, ardura, erabilera egokia eta konfiantza eskatzen dituztela. Ardurarena garrantzitsua dela deritzot; aspirina bat hartzen dugunean, horrek sor ditzakeen albo kalteez ohartu behar dugu, onartu egin behar ditugu, gure gorputzean erabiltzen dugun orok baduelako eragi-

nik. Galdera bat datorkit burura: medikuntza ofizialak eskaintzen dituen sendabideak hartu eta horiek ondoeza sorrarazten digutenean, herriko medikua, farmazeutikoa edo Bayer salatzen al ditugu? Txikia txikitzea errazagoa da beti. Denetarako erremedio santurik ez dago, eta uste dut osabideak holistikoa izan behar duela; gorputza, emozioak eta espiritua lantzea beharrezkoa direla, alegia. Horregatik, arlo honetan ere, ez ditut gustuko betiko dikotomiak: ona eta txarra, zilegia eta iruzurra, medikuntza ofiziala eta medikuntza naturala... Bata edo bestea. Osagarriak ere izan daitezke, nahiz eta bi mundu ikuskera ezberdin izan. Beste behin ere, jakinduria kolektiboak beldurra sorrarazten du, eta, horren aurrean, erantzuna zaplaztekoa da. Eskerrak sutan erre ez zituzten sorginen ilobak oraindik bizirik dirauten (diraugun). •